

## Treanean

1. bidaiaria : Egun on denei !
2. eta 3. bidaiariak : Bai zuri ere !
1. bidaiaria : Nondik heldu zarete ?
2. bidaiaria : Ni, Donostiatik.
3. bidaiaria : Eta ni Gasteiztik.
2. bidaiaria : Eta zu, nondik zatoz ?
1. bidaiaria : Ni Alzürükütik heldu naiz, Xiberotarra naiz. Nora zoazte ?
2. bidaiaria : Parisera noa egun hauetan laborarien feria iragaiten ari baita.
3. bidaiaria : Ni ere hara noa. Entzuna dut izigarri interesgarria dela.
1. bidaiaria : Bai, gaitzeko arrakasta du; eskualde guzietako jendea biltzen omen da han.
2. bidaiaria : Ontsa litzateke elkarrekin afaltzen bagina arrats batez.
1. bidaiaria : Hori, hori ideia ona ! Hola elkarren ezagutzeko parada ukanen dugu !
3. bidaiaria : Zuk errazu ! Erran dezagun bihar 8 orenetan Eiffel dorrearen 3. oinean. Bazaizue ?
2. bidaiaria : Ez ezazuela hitza jan !
1. bidaiaria : Ez ! Hitza hitz bestenaz gizona hits !

*Jokalariak : Hiru bidaiari*  
*Autorea : Kattalin Sallaberry*  
*Argitaratzailea : Ikas*  
*Argitaratze data : 2010/12/21*  
*Maila : 3. ziklotik goiti*